

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ziurtagiri ekologikoa Urbasa eta Andiako larreetarako

*Foru Gobernuak bi mendiak Nekazaritzako Produkzio Ekologikoko Ziurtagiriaren barruan sartzeko izapideak egin ditu*

Osteguna, 2017.eko azaroak 30

Onura publikoko Urbasa eta Andia mendiak Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoko ziurtagirian sartuko dira. Horretarako, Foru Gobernuaren Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak lurralde horretan dauden larreak Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluan ([NNPEK](#)) sartzeari eskatzeko izapideak hasi ditu

Bi erakundeen arteko kudeaketak 2016. urtearen amaieran hasi ziren, eta urte honetako martxoan jarraitu zuten, gaia Urbasa-Andia Natura Parkeko Patronatuari proposatu ziotenean eta patronatua ideiarekin alde agertu zenean.

Ondare-mendi hauek Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoko ziurtagirian sartzeari erabilera eta kudeaketa Europar Batasunaren eta aipatutako Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoko Kontseiluaren zuzentzararen arabera egiaztatzea ekarriko du. Kontseilu hori, haien jarraipena egiteaz eta kontrolatzeaz arduratuko da.

Ziurtagiri berriari esker, Produkzio Ekologikoaren barruan dauden ustategietako abeltzainek larre horiek erabili eta produktuak kalitate-zigilu horrekin komertzializatu ahal izango dituzte, ohiko ekoizpeneko abeltzainei mugarik ekarri gabe.

Horrela, Nafarroako Gobernuak, Urbasa eta Andiako mendilerroetan larreen erabilera iraunkor eta ekologikoa egiaztatzearen alde egin du, produktu berezi eta kalitatezko bat lortzen lagunduz, produkzio ekologikoaren zuzentzararen arabera.

### **390 abeltzaintzako ustategietako ardiak, behiak eta behorrak**

Urbasa eta Andia batera dituzten 15.637 ha-etan pagadiak eta larreak nagusiki daude, Nafarroako NATURA 2000 SAREAREN barruan Batasunaren intereseko habitat gisa katalogatuta daudenak. Belarkien larreak kalitate handikoak dira nutrizioari dagokionez, eta balio ekologiko handia dute. *Festuca rubra* eta *Agrostis capillaris* larre mesofitikoak, *Festuca rubra* eta *Festuca ovina gr.* larre mesoxerofiloak eta *Festuca ovina gr* larre xerofiloak nagusiki osatuta daude. Hauek dira gehien egoten diren zuhaixka-formazioak, ezpeldiak, elordiak, ipurudiak eta txilardiak, eta neurri txikiagoan, eremu ez emankorrak edo harri ugariak daude.

Mendilerro horietan bazkatzen duten abereak aldatu egiten dira

urteen arabera, baina balioetsitakoaren arabera, 27.000 ardi -latxa arrazako 17.000 eta Nafarroako 10.000 rasa ardi-, 4.300 behi eta 3.300 behor dira. Beraz, gutxi gorabehera 12.000 AzLU (azienda larri unitate) dira, eta Nafarroako 390 abeltzaintzako ustiategi ingurukoak dira.

Urbasan eta Andian apirilaren 15etik abenduaren 15era abereak egotea baimenduta dago, mendi horietan urte osoan egon daitezkeen ustiategi egoiliar batzuk izan ezik. Hala ere, abere gehienak egoteko aldia laburragoa da, eta normalean 4 eta 6 hilabete artekoa da.